

Martin Ugalde

In: Barandiaran Irizar, Luis de: *Cartas a Jose Miguel de Barandiaran (Segunda etapa, 1952-1991)*, Kutxa Fundazioa, Donostia, 1995: 193-194.

Ondarribin,
1970-go urriak 21

Barandiaran-dar Jose Migel jauna
"Sara" etxean
Ataunen

Jaun agurgarria:

Berriz ere ba nator ba ni zure laguntzaren eske. Lehen lagundu zirazun aiña laguntzen banauzu ez naiz asarre geratuko.

Telefonoz esan dizutenez, Euskalerriko edesti labur bat eskatu dirate; il onen askenerako egitekoa nintzan baiña labur egitea askotan luze egita baiño zailago, eta ez dakit epe onetan lana bukatzerik izango dutan.

Gure erriaren edestiko oiñarria ixtori-aurretik zen euskotarra izan, eta hau gabe ez dut nere lana agertu nahi izandu. Zuk aurretik egin dituzun lan argietako bat *El hombre prehistórico en el País Vasco* da noski, eta honetaz ari naiz baliatzen. Laburpena egiteak lanak eman dizkit, eta ala ere ez dakit batere tajurik duan edo ez. Hori eskatu nahi nizuke: ikusten dituzun akatzak zuzendu, gauzak behar diren bezela ulertzeko palta dituan zatitxoren bat edo beste erantsi zaiozula. Nola nahi ukutu eta marraztu dezakezuke lantxo hau. Nik ere nere erriari serbittu nahi nolabait, eta borondate onez egiten ari naizen hau behar bezela zuzentzeak emango dio, horretaz gaiñera, behar-beharreko duan zure burua eta eskuaren balioa.

Eta hau ikusi eta gero, zerbait horobildu eta gaurtzeko itz batzuk erantsi nahi ba dizkiozu, pozik artuko nituzke. Ba dakit liburu hau urten zan ezkeroztik gauza berriak ikasiko ziñuela gure erriaren lehen istoriatzaz, eta gaurkotze honek ba du garrantzia.

Ala ere, ez dizut lan gehiegi egin azi nahi, ba dakit lana ugariago izango duzula zuk laguntza baiño. Ala ere iñoiz nere beharrik ba duzu, ementxe nauzu:

Villa Carolina A, 4º, dcha., Fuenterrabía (Telf. 64.15.05)

Lantxo hau bertara bialki akidazu mesedez.

Ba dut egun batean zuregana joan eta itz egiteko asmoa; aurretik galdetuko nizuke telefonoz hontarako denborik ba duzun edo ez eta noiz-nolakoak.

Milla esker eta agindu.

UGALDE-tar MARTIN

* * *

Ilustre Señor:

Aquí vengo de nuevo a solicitar su ayuda. Si es tan válida como las anteriores me sentiré bien pagado.

Como le dije por teléfono, me han encargado un compendio de narraciones vascas; había pensado terminarlo para finales de este mes, pero a veces resulta más difícil hacer un trabajo breve que uno largo y no sé si podré culminarlo dentro de ese plazo.

No he querido publicar tales relatos sin esclarecer bien la fundamentación vasca, desde la prehistoria de estas narraciones. Una de las obras suyas más esclarecedoras es, sin duda *El hombre prehistórico en el País Vasco* y de ella me estoy sirviendo. Me ha dado mucho trabajo preparar la Antología y aun así no sé hasta qué grado habré acertado. Esta es precisamente mi petición: que me corrija los defectos y que no dude en añadir lo que sea preciso para un esclarecimiento del texto. Puede introducirse libremente cuantos retoques sean precisos en el trabajo. También yo tengo puesta la ilusión en servir a mi pueblo y si a mi buena voluntad incorporo su dirección, habré añadido a mi esfuerzo la valía de su inteligencia y de su mano.

Si después de visto esto, quiere Vd. añadir algunas palabras para redondear y actualizar el trabajo, le quedaré muy agradecido. Ya me supongo que desde que salió este libro habrá aprendido muchas cosas nuevas con relación a nuestra Historia antigua y aun hoy con importancia.

En cualquier caso, no le quiero cargar de excesivo trabajo. Ya sé que Vd. ha tenido más trabajos que ayudas. De todas formas, si alguna vez necesita de mí me tiene en esta dirección:

Villa Carolina A, 4º, dcha., Fuenterrabía (Telf. 64.15.05)

Puede mandarme, por favor, este trabajo a esa dirección.

Tengo pensado ir un día donde Vd., para charlar un rato. Le avisaría previamente por teléfono por si puede o no recibirme.

Muchas gracias y mande cuanto guste.

MARTIN UGALDE

MARTIN UGALDE ORRADRE. Nació en Andoain (G). Larga estancia exiliado en Venezuela. Periodista, ensayista, autor de relatos, galardonado con el premio "El Nacional" de Caracas y "Sésamo" de Madrid. Actualmente, presidente del periódico "Egunkaria". Obras: *Hablando con los Vascos. Síntesis de la Historia del País Vasco. Historia de Euskadi* (6 tomos). *Hablando con Chillida*, etc., además de una extensa producción creativa y literaria.